

ESPAINIA 2

Nola irau eta noiz arte? Jadanik zor handien pean da Espainia, eta iduri du ez dezakela holaxet luzaz ihardoki. Bizkitartean badauka oraino, eta nonbeitik jalgitzen du dirua. Beharrik du gogo azkarra eta zaila. Bertze batzu lotsatuko ziren aspaldi; bainan espaniolak ez du barkhatzen azken hatseraino.

Anhartean Kuba delako leihor hura larruturik daukate; ez uzurik ez etxerik ere, deus ez dute azkencan xutik utziko. Normahik irabaz dezan garhaitia⁶, ontasun baino hauts eta erhauts⁷ gehiago geldituko zaiote eskuctan.

Hori bat; bainan bertze nahigaberik ere badu egun hautan Espainiak. Bertze itsas-leihor batzu baditu Espainiak, Xinako aldean. Eta han ere hango jendearekin gerla du. Bi tokitan beraz etsaiak, eta bietan ezin garhaituak.

Ez da geroztik harrigarri herstura gaitxoan balin bada Espainia, gertaren ondorioz. Bai bihi⁸, bai arno, bai larru, haragi, oihal eta bertze asko igortzen zuen Espainiak urrungo leihor hoitarat. Hek oro ezin igor; langilearentzat sal-biderik ez; lan gutiango egiten; guti hura ere nehorat ezin sal nehorat. Lanak, lanak...

Hor berean, gure auzoan Andoaino eta Bergarako oihaleria batzuek langileak guti behar izan dituzte. Etxe handi batek ehun langile, bertzeak bertze hainbertze utzi dituzte, lanik gabe, baztererat.

Bakearekin ere, bizitzea ez da errex egungo eguncan. Eta gertalarekin are gaitzago⁹. Jainkoak urrikari duela Espainia!

III ADITZ IKASKUNTZA

31. Ez dezakela 32. Badauka oraino
 33. Irabaz dezan 34. Geldituko zaiote

31. UKAN POTENTIEL. Présent.

C.D.S	C.I.P
Nik Ukan dezaket = je peux l'avoir	N. Ukan dituzaket = je peux les avoir
Hik -u- dezakekin = tu peux l'avoir	H. -u- dituzakekin = tu peux les avoir
Zuk -u- dezakezu = vous pouvez l'avoir	Z. -u- dituzakezu = vous pouvez les avoir
Harek -u- dezake = il peut l'avoir	H. -u- dituzake = il peut les avoir
Guk -u- dezakegu = nous pouvons -u-	G. -u- dituzakegu = nous pouvons les avoir
Zuek -u- dezakezue = vous pouvez -u-	Z. -u- dituzakezue = vous pouvez les avoir
Heiek -u- dezakete = ils peuvent l'avoir	H. -u- dituzakete = ils peuvent les avoir

32. EDUKI = Tenir. Indicatif. Présent. Singulier.

Hura = le, la. (masculin ou féminin)

Nik daukat	= je le tiens
Hik daukakin	= tu la tiens
Zuk daukazue	= vous la tenez
Harek daukai	= il le tient
Guk daukagu	= nous le tenons
Zuek daukazue	= vs la tenez
Heiek daukate	= ils la tiennent

Heiek = les (masculin ou féminin)

Nik dauzkat	= Je les tiens
Hik dauzkaikin	= tu les tiens
Zuk dauzkazue	= vous les tenez
Harek dauzka	= il les tient
Guk dauzkaugu	= nous les tenons
Zuek dauzkazue	= vs les tenez
Heiek dauzkatu	= ils les tiennent

33. UKAN SUBJONCTIF. Présent.

C.D.S	C.I.P
Nik ukan dezadan = que je l'aie	N. ukan dituzadan = que je les aie
Hik -u- dezakekan = que tu l'aies	H. -u- dituzakekan = que tu les aies
Zuk -u- dezazue = que vous l'ayez	Z. -u- dituzazue = que vous les ayez
Harek -u- dezan = qu'il l'ait	H. -u- ditzan = qu'il les ait
Guk -u- dezagun = que nous l'ayons	G. -u- ditzagun = que nous les ayons
Zuek -u- dezazue = que vous l'ayez	Z. -u- dituzazue = que vous les ayez
Heiek -u- dezadaten = qu'ils l'aient	H. -u- ditzadaten = qu'ils les aient

CONJUGAISON 2^{de} CPT. PRÉSENT. C.D.S. C.I.P

NERI = A MOI

Zuk ukan diezazazue = (pour) que vous me l'ayez
 Harek -u- diezadan = (pour) qu'il me l'ait
 Zuek -u- diezazazue = (pour) que vous me l'ayez
 Heiek -u- diezadaten = (pour) qu'ils me l'aient
 C. Per.: Eman diezazazue (pour) que vous me le donniez